# ZIENTIFIKOA

| ZIENTZIA-PROIEKTUA | MAILA APALA | OINARRIZKO MAILA | MAILA EGOKIA | MAILA BIKAINA |
|---|---|---|---|---|
| 1 IKERKETAREN HELBURUA / HIPOTESIA | ☐ Ez dago hasierako galdera, helburu edo hipotesirik. | ☐ Fantasiatsua, ez errealista. | ☐ Adinerako egokia, egingarria, ondo formulatuta, landua. | ☐ Oso zehatza, mugatua, ondo landua, interes zientifiko handikoa. |
| 2 IKERKETAREN IZAERA | ☐ Esperimentazio edo datu bilketa hutsa. | ☐ Aurretik uste dutena demostratu nahi, jakintza berririk sortzeko asmorik gabe. | ☐ Zerbaiti buruz gehiago jakin nahi edo ikertu nahi. Hasierako lanketa gehiegirik ez edo sinplea. | ☐ Zerbaiti buruz gehiago jakin nahi edo ikertu nahi. Landua, originala, kalitate handikoa. |
| 3 ZORROZTASUN METODOLOGIKOA | ☐ Akatsak prozeduretan edo esperimentazioan edo analisian edo hausnarketan. | ☐ Zorroztasun falta edo akats txikiak. | ☐ Metodologia zuzena. | ☐ Metodologia zuzena, zorroztasunez eginda eta kalitate handikoa. Emaitzen kalitatea bermatzeko behar adina neurri hartuta. |
| 4 MATERIALAK | ☐ Erabilitako materialak ez dira egokiak eta ez da ikastetxearen baliabide faltagatik. | ☐ Erabilitako materialak ez dira ondo erabili. | ☐ Erabilitako materialak egokiak eta ondo erabilita. | ☐ Erabilitako materialak emaitzen kalitatea hobetzeko landuta (beharrezkoak diren egokitzapenak, doiketak… eginda). |
| 5 EMAITZAK | ☐ Akastunak, ez fidagarriak. | ☐ Kalitate ertaina. | ☐ Kalitatezkoak. | ☐ Kalitate aparta. |
| 6 ONDORIOAK | ☐ Ondorioek ez diote erantzuten hasierako helburuari. | ☐ Hasierako helburutik ondorioetara salto handiegia. Ondorio orokorregiak. | ☐ Ondorioek hasierako helburuari zuzen erantzuten diete. Zehatzak. Kalitate ertaina. | ☐ Ondorioek hasierako helburuari zuzen erantzunda, kalitate handikoak, mugak zehaztuta, zer hobe daitekeen eta nondik jarrai daitekeen ikertzen identifikatuta. |
| 7 AHOZKO AURKEZPENA ETA GALDEREN ERANTZUNAK | ☐ Motibazio falta, interes gutxi. | ☐ Emandako denborara ezin mugatu, asko luzatu eta ezin moztu. Edo ideia nagusiak komunikatzeko zailtasunak. | ☐ Ondo komunikatuta eta galderei ondo erantzunda. Denboraren kudeaketa ona. | ☐ Ondo komunikatuta eta galderei ondo erantzunda. Hiztegi tekniko eta oso jasoa erabilita. Kalitate aparta. Denboraren kudeaketa ona. |
| 8 AURKEZPENA EGITEKO EUSKARRI LAGUNGARRIAK (posterra etab.) | ☐ Proiektua aurkezteko behar baino euskarri gutxiago edo akastunak edo kalitate txikikoak. | ☐ Proiektua aurkezteko euskarri nahikoak. Kalitate ertaina. | ☐ Proiektua aurkezteko euskarri nahikoak, teknikoak edota dibulgaziozkoak. | ☐ Proiektua azaltzeko kalitate aparteko euskarriak, aberatsak. |

| | |
|---|---|
| **Saria jasotzeko moduko lana da?** | ☐ BAI ☐ EZ |
| **Oinarriak ez ditu betetzen (deskalifikazioa)** | DESKALIFIKATUA ☐ BAI ☐ EZ |
| **Idatzi ikasleei bidaltzeko feedback esaldia, proiektua hobetzeko ideia nagusiarekin:** | ........................................<br>........................................ |
| **Aurretik bidalitako beste euskarriengatik plus bat merezi du? Posterra (derrigorrezkoa), txostena (hautazkoa)…** | ☐ BAI ☐ EZ |

zientzia azoka
elhuyar